

Euskal kultura martxan

Zenbait galde-erantzun azalduko dira, zenbaki batzuetan, titulu nausi honen babesean.

Nola sortu zitzaidan asmo hau adierazi nahi dut.

JAKIN 34-eko sarreraren euskal kulturaren planteamendu oso bat eman nahi izan genuen. JAKIN 34 irakurri duenak ba du diodanaren berri, baina zoritxarrez (eta euskaldunon lotsarako!) gutxiagik irakurtzen dutenez, prolemtika huraxe bera zabalzea pentsatu dut. Zabalzea eta herritartzea, ZERUKO ARGIA-ren bidez.

Han, editorialaren lahen partean, kultura bat zer dan eta zertarako dan, eta gure kulturak, bereziki, bere baitan dituan kondizionamendu eta joera nausiak aztertzen genituen. Bigarren zatian (eta hau da hain zuzen hemen sakonduko dudana), gure euskal arloan martxan dauden zenbait errealdide aipatzen genituen, gure ustean eraman behar zuten bidea aditzera emanez.

Nik, ZERUKO ARGIA dudala bide, hango pondu berek ikutuko ditut, eta zehatzago emango. Eta hortarako, arlo bakoitzean egile edo eragile dugun harengana joan naiz galdera batzuk egitera. Ur-bildik izan dezan herriak gaur Euskal Herrian martxan dauden errealdideen berri.

Jainkoa lagun, hemendik pasatuko dira Euskaltzaindia, Idazleen Alkartea, Ikastola, Alfabetatzea, Erdaldunak euskalduntzea, etabar...

JOAN MARI TORREALDAY

EUSKALTZAINDIA

ematea. Euskaltzaindia organismo publikua denez gero herriari kontu eman beharra dauka eta hartu-eman bat izan, erabakien berri eman eta herriaren iritzia jasotzen, tabar. Herriak izan daiala boletín ofizial bat bezala, gauzak konsultatzeko. Ta hau dinamismo batekin eraman behar da. Euskaltzaindia, urte batzuetan, gehiago izan da euskaltzale jatorren kasinoa; kontuan euki behar da posibilitateak ere ez zirala izango berdinak.

—«Boletín ofizial bat». Ba dago erabakien berri emateko aldizkari bat, «Eusker» izenekoa. Ez al du honek eginkizun hori bete?

—Ez. Eta egin behar dana da aldizkari hori euskaltzale guzien etxeetan sartu.

—Nola eratu eta etor behar luke «Eusker» berritu honek?

—Hiru hilabetetik behin. Bi partekin: inestigazio-lanean, eta hartzen diran erabakien berriena, eta egiten danarena. Ez dedin gerta bik gauza bera egiten ibiltela. Herriak jakin dala zer egiten dan euskerari buruz.

—Barrura begiratu, ez al dago aldakuntzarik? Taldeka, edo zatituz?

—Euskaltzaindiaren lana, doan bezala, gehitzen eta gehitzen baldin badao, hileroko batzarra ez da aski. Gaurko biera bera, kasua. Nik uste, bidea sailka banatzea da. Espelizatzea. Orain, hileroko batzarra ezin liteke kendu: hor baitipat arduradunek sailen berri eman-gokute.

—Sailak nola eratu, ordea? Orain bezala batzordeak sortuz eta sortuz?

—Epe baterako sailak jarriaz. Orain alfabetatzeak duan bezala; bi urterako presidente eta sekretario bat.

—Ikus zagu orain Euskaltzaindia diru-aldetik. Gauza askotarako dirua eman behar luke Euskaltzaindia bezalako antolamendu batek; Kongresoetara joateko, bileretara, estudio-lanetara, etabar... Ba al du dirurik?, hori da lehenengo jakin behar dana.

—Ez dauka dirurik. Ikusten da, esate baterako, orain urteak Odon de Apraiz gazteiztara joan zala Alemaniara Linguistika ikastera.



Euskaltzaindiak beka bat emanada. Aita Iraizoz ez dakit nora estudioak egitera joan zan, hau ere beka batekin. Ikusten da ba zala orduan diruaren jabe.

—Gaur ez da, beraz. Eta zeinek eman behar luke diru hori?

—Lau Diputazioek bete behar lituzkete urteko gastu arruntak oro. Eskaria berritatu egin beharko da.

—Gaur egun ez al dute ematen?

—Gutxi.

—Kontuak garbi. Zenbat, numertotan?

—Igazkoak esanen dizkizut. Bizkaikoak: 85.000 pta. Gipuzkoakoak: 5.000 Nafarroakoak: 10.000. Arabakoak: bi urtetan bai, besterik ez. Bestaldekoak: ez.

—Eman ohi duan beste erakundetik ba al dago?

—Konkursu literarioak antolatuz, eta hola, batzuk. Zenbait dirudunek ere eskupekoak bai.

—Benetan gutxi dala.

—Eta are gutxiago, gerra aurretik eman ohi zutenaren pare jarriaz gero. Eta gogoan euki diruaren jeistea eta bizimoduaren igotzea. Gipuzkoakoak, gerrate-arte, 10.000 pta. ematen zuan, gaur baino gehiago. Bizkaikoak: 5.000. Nafarroakoak: 3.000. Baita ere gerra aurretik, kantidade fijoak eman ohi zituzten: Donostiako Ayundamenduak, urtero, 1.000. Bilbokoak, 2.500. Gipuzkoako «Caja de Ahorros Provinciales»-ak, 1.000. «Caja de Ahorros Vizcainas»-k beste 1.000. Eta «Caja de Ahorros Municipal de Bilbao»-k beste 1.000. Ez subentzio okasionalak. Urte asignazio fijoak.

Orain, Bizkaiko eta Gipuzkoako Probintzialak eta Muzizipalak ere ematen dute inoiz. Baina, horixe, okasionalak. Gero kontuan euki behar da beste gauza batzuetarako kantidade ikaragarriak ematen zituztela Diputazioek eta beste erakundeek.

—Errua norena da?, esan al litteke?

—Ez heurenak bakarrik. Geurea gehiago. Geuk planteamendu barri batzuk ez ditugulako egin, eskabideetan, memoria bat eginaz (egiten danaren berri), aktualizazio bat eginaz.

—Egiten zabilzate, ezta?

—Bai, gaurko bileren aprobata da, hasteko, Lau Diputazioei istantzia bat egitea, gero presupuesto bat, aurtengo ekintzaren memoria bat eta Euskaltzaindiaren historia bat, eta gero urtero Organismu bakoitzak zer eman duan. Desfasea ikusten da, gaur.

—Dirua ez da prolema esan zuenari oraingo arrazoia kenduz, uztagan diru-arazoa alde batera. Goazen azkeneko galderetara. Eraberritze-gogo hori aurrean dugula, Euskaltzaindia euskaltzainak osatzen dute.

Bi eratakoak: osoak eta laguntzaileak. Bigarren hauet begiratu ez al dago plan berriren bat? Laguntzaile izena dute. Ez badute laguntzen ez ote dago kanpora jaurtitzerik? Esate baterako, urtean behin bilkura nagusi bat egin eta han erabaki zein barrura ta zein kanpora?

—Hori egiterik ez dago. Askok ez baidakite errebisio bat zer dan ere.

—Gaur ba dakigu ezetz, gau: ez dago deus egiterik. Baina gero bai begiratu?

—Gero bati gaudela bai. Bi intertik behin-edo. Arrazoai aparteko (eta estudiantuko litzakean) batetik ez bada, eta ez badatoz, eta hemen ezer egiten ez badute... jazarlekua berotu besterik. Hori aktak erakutsiko lukete.

Erakutsi dezatela, bada, lehenbailehen. Datorrela azkar Euskaltzaindi eraberritu hori, eta batez ere herriari ezagutzera eman dezatogula Euskaltzaindi honen garrantzia.

JOAN MARI TORREALDAY

Euskaltzaindiak asko mintzatu da jendea azkenaldi hontan. Alde eta aurka. Arrazoiz eta ez.

Euskaltzaindia zer dan, zertarako dan, eta nola hobegotu adierazi aurretik, gure konzientziaren salakuntza bat egin nahi nuke. Alegia, Euskaltzaindia ez dugu haintzat hartu. Ez gaudea enteraturik ematen du Euskaltzaindia dala. «ofizialki». Euskal herri guzira besarkatzen duan erakunde bakarra. Honen ondorioak, bakoitzak atera bitza.

Euskaltzaindiaren berri jakiteko Jose Luis Lizundiarekin mintzatu zaiz. Jose Luis ezaguna da. Gaztea, mugitzen dana eta mugiarazten duana. Euskaltzaindiaren sekretario-laguntzaile.

—Jose Luis, Euskaltzaindia zer da?

—Orain 50 urte, 1918-an, Lau Diputazioek sortu zuten Antolamendu bat, euskeraren alde. Bi sailekin: babes-saila eta inestigazio-saila.

—Zure ustez, bietatik zein aurreneko?

—Eabesemailen, inestigazioakoa baino.

—Orainarte, susmoa dudanez, batez ere inestigazioakoa izan da, ezta?

—Bai, baina hori ere ez planifikaziorik, ez planteamendu ideologikorik eta errebisiorik gabe. Egia esan, ez zitekean artean hori planteatu ere.

—Herriaren eta euskeraren mo-

mentuari begiratuaz, gaur Euskaltzaindiaren eginkizuma babes emale dedila behar dugu. Ta, Jose Luis zer litzake babes-lan hau? Kulturazkoa bakarrik?

—Kulturazkoa bakarrik, ene ustez, ez. Euskaltzaindia behar dugu politikarako ere politikoki «polis»-tik dator hitz hau bere etimologi sentiduan harturik, erderaz esango genuke: «tiene un quehacer público». Eta, noski, baita euskeraren prolemtarako: ikastoiak, alfabetatze-lana aldizkariak, euskeraren batasuna. Eta bihar-etzi, organismo-jabe izanda ere, honen beharra derri-gorrezkoa dugu, hizkuntza dagoan egoeran.

—Euskaltzaindia, esan duzu, 50 urtekoa da. Dakigunez, planteamendu diferendak nausitu dira gaur. Gaurkotu al da Euskaltzaindia?

—Zeozer bai. Sartu dan jende berraren neurria. Edozein erakunde pertsonik egiten dute. Gehiago egiten ez badugu, askotan izan ohi da dinamismo baten faltaz. Esaterako, organismo hau herriari ezaguturaz egin behar dugu. Enkuesta bat egin nuan: ez herri xeheak baidak besteak ez zuan ideia garbirik, Euskaltzaindiak, ez zanik ere.

—Euskaltzaindia zabaldu ta ezagutzera eman behar dala diozu. Ondo dago, baina lehengora nator, ez al du, aurrenik, Euskaltzaindiak berritu beharrik?

—Noiz konturatu zinetan hortaz?

—Nik uste Arantzazukoa antolatzean. Honek barruan ekarri zuan batasun hori herriari ezagutzera

